

MARTÍNEZ RUEDA, FERNANDO. *Telesforo Monzón. Realidad y mito de un nacionalista vasco.*

Madrid, Editorial Ténos, 2021, 296 orrialde.

Fernando Martínez, EHuko irakasle eta ikerlariak, Telesforo Monzonen biografia bere garaian eta testuinguruan ulertzeko eta interpretatzeko ekarpena egiten du. Zalantzarik barik liburu garrantzitsua, era guztietako sorburu ugari erabiltzen baititu eta horrez gain metodologia historiografiko zorrotza, epe labur eta luzeko ikuspegietan murgiltzen, jakin dakiela ageri du. Pertsona eta pertsonaia ditu aztergai, batzuetan aktore publiko politiko moduan, besteetan literatura arloko idazletzat harturik eta aldi berean bere hezkuntza, balio eta bizimoduaren nondik norakoa ere arakutzen du.

XX mendeko Euskal abertzaletasun berriaren bilakaera aztertzeko, premiazkoak dira azterketa pertsonalizatuak. Pertsona eta kasu honetan buruzagiaren azterketatik abiatzen da eta euskal abertzaletasunaren bilakaeran kokatzen du. Historia burutzeko, euskal abertzaletasunaren zabalkundea azaltzeko eta aztertzeko baliozkoa da. Biografian murgiltzen da eta biografia adierazgarri hau T. Monzonena abiapuntu eta oinarri hartzen du.

XX mendeko euskal abertzaletasunaren garapenean Telesforo Monzon goren mailako protagonista bihurtu zen 1930tik 1981arte, hau da, bere heriotza gertatu zen arte. Baina horrez gain beren ibilbidea mitoa ere bihurturik dago, nolabaiteko heroia, euskal esparru sozial batzuetan eta hori zelan eta zergatik gertatu zen kezkatzen du liburuaren egileak eta aztergai du. Mito horretan zenbat da benetakoa eta zenbat asmatua arakutzen saiatzen da. Mitoa bihurtzea zertan datza ez da guztiz argitzen, agian. Badirudi, bere bizitzako azken 15 urteetako hautuak eta ekintza bideak mitoa bihurtzen dutela bereziki. Berea gehiago izan zen, euskal abertzaletasunaren arazo politikoa, epika eta poetikatik lantzea. Ez horrenbeste eguneroko kudeaketaren ondoriozko politikagintza. Horregatik, F. Martinezek, Telesforo osoa, Telesforo desberdinak garaian garaikoak aztertzea proposatzen du.

T.Monzonen lan osoak argitaraturik daude eta zenbait biografia ere P Suduperena *Telesforo Monzon, aristokrata abertzalea* (2018) adibidez. Horrez gain, Maria Dolores Monzon, Isidro Monzon eta Maria Josefa Ganuzak Telesfororen alargunak 1982an Olaso dorrea fundazioa sortu zuten Bergara eta Euskal Herriaren aldeko ekimenak burutzeko. Bertan, gaur egunean indarrean dago ondoko egitasmoa: Telesforo Monzon eLab/Euskal Herrigintza Laborategia, herrigintza euskal Estatuagintza burujabearekin lotzen dutelarik. Beraz, Telesforo Monzon helduleku ugariko gaia dugu eta horrez gain ikur eta marka ere bihurturik dago.

F. Martinezen ikerketa zientzia historikoen teoria eta metodoetan oinarriturik dago, ezagutza eta azalpen berriak erakutsi nahian. Ohiko kontakizunaren esparrutik aldenduz, azterketa du oinarri, jatorrizko sorburu ugari eta kontrajarriak elkarren ondoan jartzen ditu eta epe luzean, denboran barrena kokatzen du T. Monzonen ibilbidea, bizitza, ekintzabidea, asmoak. Adibidez modu sistematiko batez T. Monzonek idatzi zituen euskarazko literatur lanak politikagintzaren argitan egiten du azterketa. Euskaraz olertiak, antzerkiak, ipuinak idatzi zituen baina unean uneko giro politikoan arakatu beharrezkoak direnak, alegia.

Liburua 6 kapitulutan banaturik agiri da eta bi zati handi bereiz genitzake: lehen 200 orrialdeetan T. Monzonen pertsona eta pertsonaia, aurrekariak, jatorria eta bilakaera aztertzen du.

Olaso dorrearen esanahia euskal historian lehen kapituluan azpimarratzen du, leinu eta handikien portaeretan sakontzen du. Gai hori ondo ezagutzen du F. Martinezek, beste horrenbeste Enkarterrietako leinu eta handikien izaera, lege zaharraren krisialdian, aztertu zuelako aurreko liburu batean. Handiki hauen aristokratizazio prozesua Espainiako monarkian gertatu zen. XVII mendean porrotean agiri ziren aristokraten tituluak erosten zituzten Gaztelan eta ondoren Euskal Herrian nobledun berezi eta aparteko gisa agiri dira, biztanle gehienak kaperadun edo nobledunak ziren herrialdeetan. Handikiak nabarmentzeko beharra zuten, jakina. Olaso dorretxeok ere jauntxo handikien portaerak erakusten zituzten, agintari publiko izatea beraien berezko zeregina zen eta horrela agiri da Monzon izenekoa beranduago XIX mendean. Sociedad Bascongada de Amigos del Paiseko idazkaria Migel Jose Olaso (Bergara,1718-1773) izan zen eta Olaso Dorrean egin zen Batzarra, literatur gaiak lantzeko eta 1765eko apirilaren 18an M.J. Olasok *Historia de la nación vascongada* idazteko jarraibideak proposatu zituen.

Jauntxoen berezko zeregina agintari politiko bihurtzea zenez gero, Real Seminario Patriótico Vascongado delakoa sortu zuten goi mailako hezkuntza eta jakituria jasotzeko, ondoren populuaren edo herritarren ordezkari eta bitartekari izateko. Eta Telesforok handiki izaeraren berezko zeregin nagusia praktikatu zuen, politikagintza. Baina bere politikagintzak ere izan zuen bilakaera sakona, esparru guztietan. Eta horixe erakusten du liburu honek.

Beraz, liburuari jarraituz, bere bizitzan laualdi bereiz daitezke: 1930 artekoa, goi mailako handikien baitakoa, Espainia zelarik berezko jokalekua. Baina urte horretan euskaltzaletu egin zen, Kizkitzaren, Engracio Aranzadiren *La nación vasca* liburuaren bidez, besteak beste. Kizkitza integrista katolikoa izan zen, euskaltzalea eta integrismotik Sabin Aranaren Euzko Alderdi Jeltzalera igaro zen XIX mende bukaeran eta harrez gero, 1931 arte EAJko ideologo nagusia izan zen. Telesfororen aita integrismo katolikoan kokatzen zen, *La Constancia* egunkaria irakurtzen eta aldi berean euskaltzalea ere. Baina

Telesforo euskaltzaileen bazkunan sartu zen eta ondoren Jeltzalea bihurtu zen. Gipuzkoan gizon publikoa bihurtzeko euskaltzaletu egin zen eta Eusko Alderdi Jeltzalearen ildoan bideratzen du ekintzabidea. Bilboko Jeltzaleak euskararen alde zeuden baina buruzagiek ez zuten euskaraz egiten. Tolosaldeko Urkizu baserrian murgildu zen baserriarren soziabilitatean eta izaera ikasi nahian eta euskara bere komunikaziorako eta oratoriarako landu zituen. Hilzorian zegoen baserri eredu euskal aberriarekin alderatu zuen. Integrismotik Jeltzaletasunera bilakaera egitea ez zen jauzi handia.

EAJren lehen aliantza Espainiako legebiltzar errepublikanoa osatzeko egin ziren hauteskundeetarako, 1931ean, karlista, integrista eta bestelako talde konfesional katolikoekin izan zen eta arrakasta handia lortu zuten. Baina berehala ikusirik autonomia estatutuak Diputazioetarako gobernu errepublikanoak izendatu zituen behin behineko Diputatu probintzialen bidez bidera zitekeela, EAJkoek horren alde jokatu zuten baina bestelako tradizionalistak ez. Beraz, 1936an 5 urte lehenago aliatuak zirenen kontra borrokatu behar izan zuen, komunitate tradizionalistetak karlistak gobernuaren kontra armak eskutan altxatu zirelako. Hau bai izan zen jauzia eta etena T. Monzonentzat, EAJ, alderdi katoliko eta konfesionala izaten jarraitu arren, Erromako aitasantuaren agindupean.

Bigarren garaia litzateke, beraz, 1930tik 1946ra, 15 urte (Bergara-Mexiko-Ipar Euskal Herria) euskal abertzaletasunaren zabalkunde garaia, gerra, Eusko Jaurlaritzaren baitan agintari, ertzaintzaren buru. Gero erbestealdiaren hasieran, jeltzaleen buruzagi izan zen. Garai honetan autonomiaren aldeko Estatutismoa defendatu zuen. Baina gogoratu behar dugu, aldi berean, Eli Gallastegiren zuzendaritzapean, EAJtik at, Euzko mendigozale Batza antolatu zela eta autonomiaren aurkakoak ziren eta independentziaren aldekoak.

Hirugarren garaia, erbestealdi luzea agiri da. 1946an Mexicotik etorrira Donibane Lohitzunen, "Mende Berri" etxe ederrean sartu ziren, maizter, T.Monzon eta Maria Josefa Ganuza, ondoren 1960an erosi egin zuten. Etxea erreferentziatzeko lekua bihurtu zen politikarako eta ekintza kulturaletarako: 1948an bertan bildu zen Eusko Ikaskuntzako Kongresua antolatzeko batzorde antolatzailea eta bertan hartu zuten Jose Antonio Agirre lehendakariaren gorpua, 1960an. Trantsizio demokratikoa berehala gertatuko zela ustez zuten eta barkamenaren aldekoa zen Telesforo. Barkamena justiziaren orde. Soluzio monarkikoaren aldekoa zen eta karlista-frankistekin nolabaiteko harremana lantzearen aldekoa. 1956an Parisen, Eusko Jaurlaritzak antolatu zuen "Euzkel Batzar Orokorra". Bertan nabarmendu zen adieraziz errepublika iragana zela eta bestalde hegoaldean euskararen alde eta abar zeregin berriak zeudela. Erbestealdia ipar Euskal Herrian, Donibane Lohitzunen igaroko du. Baina aldi luze honetan badago 1956eko etena baino sakonagoa, haustura esango genuke. Burgoseko ETAkoen kontrako epaiketa izan zen 1970an. Jeltzalea izan arren, EAJtik urruntzen zihon. Laugarren aldian, azken aldian, Batasunaren

programa aldarrikatzen du, abertzaletasun jagi jagitarren ildoan kokatzen du bere burua eta jauzia egiten du ETA eta Herri Batasunaren ildora. (1970-1981).

Azken 90 orriak, ETA erakundea eta Monzon du aztergai. Beste Monzon berria azalarazten doa, Monzon epikoa eta poetikoa nabarmentzen. Azken orri hauetan laburbiltzen dira mito bihurtzearen zergatietako batzuk.

Zehatzago, azken ibilbide horretan 1968-1970 urteetan azkartzen da bere aldaketa alegia. Baina Espainiako diktaduraren testuingurua aintzat hartu behar dugu errepresio poliziala, torturaren aplikazio sistematikoa zabaltzen doa euskal gizartearen.

Une horretan Txabi Etxebarrieta ETako buruzagi gaztea heroia berria bihurtu zen belaunaldi gazte eta berriarentzat. Bere omenezko hileta elizkizunak manifestazio publikoak bihurtzeko aitzakiak bihurtu ziren. “Batasuna” izeneko egitaraua sortu zen eta Eusko Alderdi Jeltzaleen gazte erakundean ere, EGI, eragina izan zuen. EGI- Batasuna izeneko sortu zen eta bi urteren buruan ETA bostgarren ildoan sartu. Eustakio Mendizabal “Txikia” eta Jose Migel Beñaran “Argalaren” gidaritzapekoan, Zornotzan eta Erandion bilerak egin ondoren, 300 militante inguruk, Iñaki Mujika Arregiren gidaritzapean, ETA berria sendotu zuen eta buruzagitza hartu ere. EGI batasunak sortu “Aintzina” izeneko joera berriaren orde, ETA berrantolatu zen, lau fronteak indartuz. T. Monzon eta Txillardegí EGI batasunaren erabakiaren ondorioz, albo batean gelditu ziren bere “Batasun” eta fronte abertzalearen egitasmoan. Ondoren beraien ibilbideak banatu egin ziren, Txillardegí 1977an ESBren kide bezala hauteskundeetan agiri zelako. Bestalde, bai komeni da gogoratzea, fronte nazionalaren proposamena aspaldikoa zela. Jagi-Jagitarrek proposaturikoa da. 1956 urtez geroztik. Ameriketara hainbat agerkari azaldu ziren baina hegoaldean ez zuten eragin zuzenik izan.¹

Diktadura militarrek Estatu espainolean 1970an errepresioa berriz ere indartu egin zuen, atxiloketak eta torturak, biolentzia giroa gero eta nabarmenagoa zelarik. Kontraesana nabaria, alderatuz gero Europako beste herrialdeekin eta urrun joan barik ipar Euskal Herriarekin. Euskal Herria ekonomiko nazio garatua zen Europako ekonomia kapitalistaren testuinguruan. Baina politikoki, edozer gertatzeko zoria zegoela klandestinitateko militanteen artean uste zabal zen, iraultza zen kontzeptu nagusi berria, nazionalismo iraultzailea. Baina aldaketa horren norabidea, sakontasuna eta helburuak ez zeuden hain garbi.

1. Ikus, de Guezala Luis, “Disidencia de papel en el exilio americano. Las publicaciones del Frente Nacional Vasco-Euzko Aberri Alkartasuna durante la dictadura franquista (1957-1967)”, *Boletín del programa de estudios vasco-americanos*, nº31-33, 2021, 135-163

Giro horretan T. Monzon jeltzale izatetik 1970eko ETaren abertzaletasunaren tesietara egiten ari zen jauzia. Ondoko 11 urteetan abiatu zuen aldaketaren ondorioz, Herri Batasuneko esatari publiko bihurturik, ezker abertzalearentzat mitoa umotzen ari zen. Iraganeko pertsonaia historiko eta handiki zaharren ildoko errentista klasekoa zena, proiektu berriaren buru jartzen ari zen. Hala ere guztiek ez zuten onartu hain errez bere buruzagitza, Argalaren gomendioz etorri arren, iragan zaharkitu baten ispilu zelako, giro iraultzailean. Azken kapitulua eta epigonoan horixe da liburu honen aztergaia.

Biografia bat lantzea lanik zailena dugu eta ezinezkoa dela ere adierazten du Pierre Bourdieuk, F. Martinezek aipatzen duen bezala, aldez aurreko traiektoria jakinekua balitz bezala aztertzen denean. Berez, P. Bourdieuk aldez aurretik amaiturik ezagutzen dugun kontakizunaren araberako biografia kritikatzeko du, "traiektoria" delakoa, biografoak asmatzen duelako. Baina historialariok ondo bereizten ditugu kontakizuna eta zientzi historikoen bidezko azterketa. Horregatik sarreran gogoeta sakona egiten du F. Martinezek biografiaren inguruan eta galga baino ekarpena dela aldarrikatzen du. Euskal nazionalismoaren bilakaeraren azterketa egiterakoan, sujetaen esperientziaren eta azterketaren arabera egin nahi du T. Mozonen izaera eta ekintzabidea aztertuz, euskal abertzaletasunaren bilakaeraren gaian murgiltzeko. Azken batean historia pertsonala, publikoa ere bihurtzen delako, politikoa alegia eta aldi berean gai politikoak-publikoek eguneroko bizimodu pertsonalean ere erabateko eragina dutelako eta hein handi batean baldintzatu egiten dutelako. 1960ko feminismoaren ekarpena dugu eta emakumezkoek frogatutakoa, ondoko sloganean laburturik zegoen: "The personal is political and the political is personal".

T. Monzonek parte hartu zuen esparru kolektibo eta publiko desberdinetan eragiten ditu eten bako edukiak. Batzuetan jarraipena agiri da beste batzuetan haustura. Beraz biografia honetan, orohar, lau Telesforo azaltzen ditu, lau garaietan eta bere usteak eta pentsakerak aztertzeko Martinezek bereziki bere literatur lanak aztertzen ditu, metaforak politikagintzaren argitzen dituelarik. Azken batean Telesforo sortzaileak kontakizun zabal baten aldarrikatzaile eta zabaltzailea izan nahi zuen baina baita aktore protagonista ere. Herri Batasunak parte hartu ala ez erakunde publikoetan erabakitzen zegoenean, badirudi ez zuela parte zuzena hartu bozketan. Bere politika egiteko zioa 1979an, unean uneko agintaritzan barik, burujabetza osoaren kontakizunean kokatzen zuen. Baina euskal gizartean agiri zen aniztasun politikoaren zatia baino ez zela, ez zuen onartu bere kontakizunean eta bere irudiko Euskal Herrian.

Hasieran esaten genuen, F. Martinezen kezka zen, nola eta zergatik gertatu zen hain aldaketa eta haustura sakona, baita ere garai bateko printzipio etikoak aintzat hartuta. Azken urteetan gerra ez zela amaitu eta gerrak jarraitzen zuela eta gudariak ETAko kideak zirela aldarrikatzen zuen. Ez da sartzen aztertzen zelako gerra mota eta hilketak egiten zituzten. Ekinza beraren gurtzea baino

ez da agiri. Erbestealdian 1960ko hamarkadan, *Gudari* izenburuz aldizkariak argitaratu ziren, EAJren ildoan eta 1970ko hamarkadan etakideak gudariak bihurtu zituen T. Monzonek.

Erbestealdietan herria eta nazioaren ikuspegiak aldatzen joaten da. Ikerketa ildo luzea da eta Euskal Herriari buruzko kontakizunak aldatuz joan ziren, argitaratu berri ditugun lanetan erakutsi ohi dugun bezala. T. Monzon Ipar Euskal Herrian bizi arren, agian hegoaldean gertatzen ari zen aldaketa sakonak modu zuzen zuzenean ez zituen bertatik bertara ezagutu.

Azkenik, liburu honetan nazionalismoa eta abertzaletasuna ere aztergai ageri da. Aurkibidea baino lehen, Carton J. H. Hayes Ameriketako Estatu Batuetako historialariaren aipamena ageri da liburuan, nazionalismoa erlijiotzat hartu behar zela, aldarrikatuz. Beharbada erlijio monoteista eta salbatzailearen ulerkeran, agian, katoliko ekintzailea zelako. Baina erlijioak ezin dira eredu monoteista eta mezu salbatzaile mugatu. Aberriaren salbazioa eta erlijio salbatzaileen artean izan daiteke zubia eta diskurtso jarraipena. Carton J. H. Hayes 1942tik 1945arte Madrillen Estatu Batuetako enbaxadorea izan zen, Francoren Estatu totalitarioaren eraikuntza uanean. Saiatu omen zen Franco ez lerratzen Alemania eta Italiako totalitarismoarekin, baina “nazional katolizismoa” delakoan oinarriturik zegoenez gero, agian Estatu berri totalitarioan barik, katoliko izaeraren aitzakiaz, Estatu Batuetako interesetarako erakargarria izan zitekeela uste zuen eta 1953an babes politikoa lortu ere.

Ildo honetan, F. Martinezek bere bostgarren kapituluaren izenburua Sabino Aranaren nazionalismo erlijiosotzat definitzen du eta ETArena erlijio politikoa bihurtu zen heinean Telesforo Monozek egin zuen jauziaren, testuinguru horretan uler zitekeela adierazten du. Baina hipotesi honek ikerketa gehiago beharko luke.

Totalitarismoarekin lerratzen du Hayesek nazionalismoa eta bestalde Estatu Batuetako nazionalismo isolatu edo bakartuaren aurka jotzeko egiten du bere interpretazioa. Nazionalismoaren ulerkerak eta praktikak ugariak direla bistakoa zen 1960ko hamarkadan. Nazionalismo iraultzaile izenekoan oinarritu ziren deskolonizazio prozesu ugarietako ideologiak. Euskal Herrira ere iritsi zen formulazio hori 1960ko hamarkadan ETA erakundearen baitan.

Bestalde, Anthony D. Smithen ikuspegia nazionalismoari buruzkoa aipatzen du baina modernizazio ekonomikoaren ondorio zuzen eta halabeharrezko moduan Ernest Gellnerrek erakusten du. A. D. Smithen badu liburu garrantzitsua *“The Ethnic Origins of Nations”* (1986), beste faktore eragile batzuk azpimarratzeko, Ingalaterran, Frantzia eta Kastilla-Espanian, gertatu zen estatugintzaren azterketa egiterakoan, hiru iraultzaren ondorioz, ekonomikoa, politikoa eta kulturalak azpimarratzen ditu.

Laburbilduz, azterketa biografiko politiko berriak arakatzeko eredua dugu honetan eta T. Monzoni buruzkoan abiatzeko oinarri sendoa jarri du.

Joseba Agirreazkuenaga
UPV-EHU

AGIRREAZKUENAGA, JOSEBA. URQUIJO, MIKEL. *Diccionario biográfico de los parlamentarios y parlamentarias de Vasconia (1977-1986).*

Silex ediciones, Madril, 2022, 773 orrialde.

Historiografia osoan zehar, leku berezia bete izan ohi du aktore politikoen bitartez historia ulertzeko saiakerak. Azken urteotan, metodologia berritzaileak aplikatzen ari dira biografien azterketak egiterako orduan. Baina denek ere, prozesu sozial eta politikoak determinatzen eta baldintzatzen dituzten subjektuen gaineko azterketa egiteko premiari eusten diote, prozesuak bere osotasunean ulertzeko bide bezala. Mikel Urquijok eta Joseba Agirreazkuenagak zuzendutako lan honek, *Diccionario biográfico de los parlamentarios y parlamentarias de Vasconia (1977-1986)*, helburu hori bera jarraitzen du. Euskal Herriko parlamentarien inguruko azterketa eta lanketa sakon bezain garrantzitsua dakar guregana. Alde batetik, legebiltzarkideen zein gorteetako hautetsien biografia zehatza aurkeztuen duelako, eta bestetik, Trantsizio garaiko jardun parlamentarioaren inguruko irudi orokorra erakusten duelako.

Aurrean dugun hiztegiak, jarraikortasuna eman nahi die aurretik ekoiztu diren beste hainbat lanei. Azken hogeitau urteetan, Gorte Orokorretan Vasconiako lurralde ezberdinen ordezkariak duten parlamentu kideen inguruko lanak publikatu dituzte: *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1808-1876)* eta *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1876-1939)* horren adibide. Biak, Eusko Jaurlaritzak argitaratuta zituen 1993 eta 2007an, hurrenez hurren.

Lan honek, 1977 eta 1986 urte bitartean Euskal Herriko lurraldeetan ordezkariak zuten parlamentarien biografiak biltzen ditu. Hain zuzen ere, Trantsizioaren garai bete-betean kokatzen da, ezegonkortasun politiko eta soziala gailendu zen testuinguruan. Francoren heriotzaren ostean Erreforma Politikorako Legearen baitan deitu ziren Hauteskunde Konstituziogileak hasiera bezala hartu dira eta PSOEk 1982ko hauteskunde orokorretan lortutako gehiengoarekin abiatu zen legealdiarekin amaitzen da (1986). Beraz, lanak, urte horietan zehar parlamentariak eta senatariak hartutako jarrerak, erabakiak edota aurrera eramandako jarduna ulertzeko bidea irekitzen du, modu ordenatu eta garbian. Zehazki, Gorte Orokorretako lehen hiru legegintzaldietan (1977-1986) eta Eusko Legebiltzarreko lehen legegintzaldian (1980-1984) aukeratuak izan ziren parlamentarien aktibitatea eta biografiak lantzen dira. Aipagarria da gainera, lehen aldiz Vasconiako emakume ordezkarien biografiak ere biltzen direla, garai berrien isla bezala.

Autoreek ondo azpimarratzen duten moduan, gaikako hiztegi biografikoen taldean sartzen den lana da honakoa. Besteak beste, *Dictionnaire des Parlementaires Français* lanean ezarritako filosofia jarraituz eta eguneratuz egindako lana da. Besteak beste, biografiek lanaren osotasunarekiko harreman

estua eduki behar dute: euren jarduera mailari zuzenean erreparatzeaz gainera, ordezkartzaren zentzu zabalean jartzen da arreta, pertsonaia bakoitza banan-banan aztertuz.

Hau azpimarratzea garrantzitsua da, izan ere, hiztegi hau osatzeko aukeratu diren protagonistak, irizpide zehatz eta objektibo batetatik abiatu dira: parlamentariak dira guztiak. Bestela, guztiz subjektiboa litzateke parlamentariak garrantziaren arabera sailkatu edo analizatzea, lan-saioretako egunerokoak ez baitu sarritan pertsonaia batek izandako garrantzia zuzenean plazaratzen. Parlamentua, finean, hitzarmenen minutu kopuruetatik haratago doan inguru konplexuagoa. Gainera, ezin dugu ahaztu parlamentuetako taldea ez dutela soilik bozeramaileek osatzen. Horren atzean, taldekide ugari daude, iritzi, portaera eta ideologia ezberdinetako pertsonak, eta hortaz, bozeramaileen hitza ez da osotasunaren baliokide, obrak hasieratik modu garbian uzten duen moduan.

Iturriei dagokionez, beste lan historiografikoetan egin diren hainbat lanketa biografikok ez bezala, obra honetan artxiboetako lehen eskuko iturrien erabilera egiten da. Honek, analisisian egin daitezkeen akats edota zehaztasun faltak murriztea ahalbidetzen du ezbairik gabe, eta biografiaren analisi subjektiboak garatzea ekiditen du gainera. Haatik, obra hau gauzatzeko erabiliak izan diren iturri mota ezberdinek aberastasun maila oso altua dute. Izan ere, Legebiltzarreko artxiboez gain, hauteskundeetako dokumentazioak, dokumentu pertsonalak, prentsaren gaineko azterketa sakona eta artxibo lokal zein herrialde mailakoetan egindako ustiaketa lanak goraiatzekoak dira. Gainera, hori ez ezik, artxibo familiarretan eta erregistro zibilean aurkitu zitezkeen datu eta informazioa ere jaso dago lan honetan. Laburtze aldera, iturrien kopuru eta kalitatea zinez adierazgarria da, iturri originalak, lokalak, eta publiko zein pribatuak erabili baitira biografiak ahalik eta modu gertukoenean ekoizteko. Honek guztiak, biografia osatuak egitea ahalbidetu du.

Izan ere, horri esker, lan honetan biografien analisi integrala egiten da, aztertutako protagonistak bere ibilbide historikoan txertatuz eta joera sozial zein politikoak argituz. Horrela bakarrik ulertuko daitezke pertsona hauei bizitzan zehar hartuko dituzten erabaki ezberdinak.

Liburuak, legebiltzarkidea bere osotasunean ezagutzeko eta politikoki zein sozialki kokatzeko aukera ematen dio irakurleari. Gainera, parlamentuko kideak dimentsio lokal zein nazionaletik aztertzeke aukera ere ematen du biografia ereduak, eta bereziki inportantea den gai bati arretaz heltzen dio: parlamentariak euren lurraldearekiko daukaten lotura estuari eta horren garapen politikoari.

Finean, biografia kolektibo bat eratzeke hautuak eskema komun batetik abiatutako osotasunaren gaineko ulerkera bultzatzen du. Biografiak inguru

familiarra, inguru soziokulturala, materiala eta politikoa aztertzen dituzte. Alde batetik, familia (familia politikoa barne), zentzu zabalean aztertu da, guraso eta aitona-amonen joera sozial eta politikoak ere kontuan izanda. Pertsonaiaren formakuntza akademikoa zein bizitzan zehar duen kapital kulturala ere aztertzen da, besteak beste, prentsan edo beste hainbat aspektutan izan ditzaketen produkzio literario edo akademikoa azalaraziz. Hori gutxi balitz, aspektu materialean pertsonaiek dituzten jabetza eta bizi-bitartekoak analizatzen dira, eta azkenik, antolakuntza politikoari egiten zaio erreferentzia.

Liburuan parte hartu duten egile guztiek jarraitu dute biografiak burutzeko patroia berbera, analisiak burutzeko zutabe komun bat, eta hori, argi ikusten da lanean zehar, irakurlea lanean zehar erraztasunez mugitzeko aukera ahalbidetzen duena. Gainera, horrek irakurleari biografia ezberdinen artean konparaketak egitea ahalbidetzen dio. Dokumentazioa lortzeko oinarri berdina izateak, koherentzia eta ordena ezin hobea ematen dio obrari, hamaika tokitako iturritz jositako lana idazteraino. Ez da kasualitatea biografia ezberdinen artean Diputatuen Kongresuko artxibo ezberdinak, Senatuko artxiboetako datuak, liburu ezberdinen lanketa, edota prentsa, blog, elkarrizketa edota artikulua ezberdinetako informazioa aurkitzea.

Ondorioz, aipatutako legegintzaldietan leku bat eskuratu zuten Hego Euskal Herriko diputatu eta senatari guztien lanak aztertzen dira. Nahiz eta aukeratutako kopuru totala 130 aulkitakoa izan, batzuek errepikatu egin zuten eserlekua, eta beraz, obran aztertuta dauden biografia kopuru finala 100 pertsonakoa da.

Obrak duen beste puntu aberasgarrietako bat, parlamentari hauen egoeran aurkitzen dugu. Ikerturako ehun parlamentarietatik 59 bizirik daude egun. Honek, aldi berean, egileek aitortzen duten moduan, arazo metodologiko batzuk ekarri ditzake, hala nola, artxiboetako iturri batzuk kontsultatzeko eragozpenak edota biografiak euren bizitza osoa kontuan hartu ezina. Aldi berean, jarduera parlamentarioa behin betiko albo batera utzita dutenak izaki, horri dagokionez, bizitza politikoaren ziklo osoa biltzen dutela esan genezake.

Hala ere, lan parlamentario konkretutik haratago doan bizitzaren analisi eta azterketa da lan honek plazaratzen digun alor interesgarrienetako bat. Obra ez da besterik gabe jarduera parlamentariora mugatzen, eta beste ikusmira bat planteatzen digu. Parlamentariak ez dira soilik bere jarduera profesionalaren gainean aztertzen, baizik eta saiakera berezia egiten da hauek gizartean duten egoera sozial eta komunitarioa aztertzeko, eta hau oso garbi ikusi daiteke biografia ezberdinetan zehar. Beraz, legebiltzarreko jarduera aztertzen duen eta parlamentariaren izaera sozial eta politikoa bere osotasunean aztertzen laguntzen diguten elementuen bilkura aurkezten da obra honetan, oreka ezin hobea ezarriz parlamentu barruko lanaren eta hortik kanpoko bizitza politikoaren artean. Puntu honetan, ikerketa taldeak hartutako erabakia goraiapatzekoa da,

izan ere, nekez ulertu daiteke edozein figura politikoren eguneroko jarduna soilik parlamentuko aktibitateari begiratzen bazaio.

Honekin batera, lortutako informazio guztia osatze aldera burutu diren 49 elkarrizketak ere goraiatu nahiko nituzke. Parlamentariei zuzenean egindako elkarrizketak dira, edota hainbat kasutan, beraien inguruko pertsona eta familiarrei egindakoak. Iturri oralaren garrantzia oso handia da parlamentariak euren bizitzaren prozesua beraien ahotsetik eta hortaz, euren terminoetatik entzuteko eta analizatzeko. Balorazio pertsonalak oso aberasgarriak dira historialariek analizatu ditzaten, eta obra hau horren erakusle da.

Azken finean, XX.mende bukaerako garai historiko garrantzitsu bateko azterketa sakona da honakoa, garaian gure bizitzetan modu batera edo bestera influentzia handia izan zuten politikarien biografia osatuak. Hortaz, behar den aitortza egitea dagokigu, bai obrari, bai eta lana ekoizteko ardua hartu duten norbanako guztiei. Gutxienez hiru hamarkadaz luzatu den ikerketa lerro baten jarraipena da honakoa, eta seguru naiz, honen atzetik ere etorriko direla gisa honetako lanei jarraipena emango dieten obrak. Azkenik, lan honek erakusten duen metodologia eta iturriek ustiaketa lana ere aipatu nahiko nituzke. Lana nekeza izan arren, ahalik eta biografia osatuena eta objektiboenak ekoizteko lana baita honakoa, eta obra kolektiboen mailan puntakoa, autore ezberdinek euren ekarpena egin izanak, ez baitio horrelako lan batek eskatzen duen ordena eta jarraikortasunari eragin, alderantziz baizik.

Jon Aldabaldetrekua Delgado
EHU-UPV